



Herritar asko animatzen dira krosean parte hartzera, baina inguruko herrietatik ere korrikalari asko etortzen dira.

Kroserako prest

Igandean egingo da Ostadar K.F.k antolatzen duen kros herrikoia XV. edizioa

Urriaren 31n, igandean, burutuko da helduen Kros herrikoia hamabosgarren edizioa eta haurren Kros Txikiaren hamargarrena. Goizeko 10:30ean hasiko da helduen lasterketa eta haurrera berri, eguerdiko 12:15ean.

Informazio gehiago aurkituko duzue zenbaki honen barruko gehigarrian.

Gehigarria 5. orrialdetik aurrera.



**Larunbatean
ordua aldatu
behar da,
goizeko
03:00etan
02:00ak
izango dira**

KULTURA/ 3

**“Lasarte-Oria
Dantzan” ekimena
berriro martxan**

GIZARTEA/ 4

**XVIII. Osasun
Jardunaldi
arrakastatsuak**

Kalitatezko ahotsak

Tolosako abesbatzen lehiaketa dela eta, *Liepaits* abesbatza lituaniarra entzuteko aukera egon zen asteazkenean kultur etxean. Ahots zurien abesbatza entzutea hurbildu ziren herritarrek asko gozatu zuten abestiez eta koreografiak. Kontzertuan bi zati egon ziren, lehenengoan Robert Schumanen *Lied*-a edo Francisco Escuderoren *Ene Ama* abestiak entzun ziren eta bigarren, lituaniar doinuak izan ziren nagusi, nahiz eta amaieran Piazzolaren *Libertango* edo Tolosan abesti behartua den Eva Ugalderekin *Dizdika* zeruan gabon-kanta entzun ziren.



Abesbatza lituaniarreko 40 neskek. a capella edo pianoaren laguntzaz, kontzertu paregabea eskaini zuten kultur etxean.

**Hurrengo
TXINTXARRI
azaroaren 5ean,
ostiralean,
argitaratuko
dugu. Bertan
Lasarte-Oria
Bai! krosetako
nondik-norako
guztiak izango
dituzue.**

MEKANIKAKO
TAILERRA



DIMETAL S.A.



ZERBITZU OFIZIALA



LOMBARDINI

SAN JOSE-OLAIZ

- Kamioien txasia konpontzeko oinarria.
- Aluminiozko eta burdinazko soldadurak.

- Industriako ibilgailuen konponketa.

Ordutegia: 8:30 - 20:30



**Lasarte-Oria Bai!
KROSA ANIMATUZI!**

Zirkuitu ibilbidea 6 • 20160LASARTE-ORIA • Tel.: 943 361857 • Faxa: 943 366508

Neure kabuz



Santiagorako bidea eginez

Compostelako Santiagotik etorri berriak gara. Lasarte-Oriako hainbat jende bildu, bidaia hori egin behar genuela erabaki eta han izan gara aste beteko ibilaldian. Modu asko daude horrelako bidai bat egiteko. Gure kasuan, gehienak adindunak izanik, patxada hartu eta geure neurrikoa egin dugu. Lehendabizi Lasartetik Burgosera, han, bi egunetan, nahiko toki bisitatu eta landu genituen, baita gozatu ere, eta eguraldi oso ona genuenez, pasio ederrak eman.

Burgostik bidea eginez Palentziako Frómista herrira, _nolako eliza erromanikoak egin zituzten fededunek_, Santiago bidetara jarraituz, bidearen nondik norakoa ikusi genuen eta oso egoki etorri zitzaigun, bertan duten ikuskizun digital eder bati esker. Hobeto ezagutu eta hausnartzeko aukera izan zen hura. Inorri gomendatzeko modukoa da ikuskizuna.

Palentziatik Leonera iritsi arte, _hemen beste bi egun hartu eta bai ongi gozatu genuela_, gidari oso atsegin eta jakituna izan genuen, euskaraz ere zerbait bazekiena gainera, Nafarroan bizia bait zen. Hari esker lau orduko bisitaldi bikaina izan genuen, elkarrekin. Gero taldeka edo bakarrik, nahi zuenak berea eginez, jardun genuen.

Eta Santiagon azkenik. Pozaren mendian. Erromesak han elkartu eta azken bost kilometroak egiteko prestatzen diren lekuan. Bertan atsedena hartu, garbitu, jan eta edan, gauzak moldatu eta katedralera, erromesen meza ospatzera. Oso meza jendetsua. Ospakizun luzea baina sakona. Jende askoren jarrera hunkigarria (konfesioa, hizketaldia, besarkada, aitopenak...). Urte hau bukatzerakoan dononahian, esan zigutenez, zortzi milioi jende pasatuak dira eta hamarrera iritea espero dute. Inoiz ezagutu ez den jendetza. Zergatik? Zertarako? Zeren bila? Dena eskurtsioa ote da, edo beste zerbait gehiago? Hainbeste jende turismoa egiten edo... zer bestela?

Xabier Andonegi

Zorion-agurrak



Ibon, Aitor eta Nadia

Zorionak zuen 5.urtebetzean! Aita eta familia guztiaren partetik! Muxu haundi bat!




Nora

Zorionak udazkeneko lore eder! 9 muxu handi. Ilargirafo ta bueltan maite zaitugu!



Dune

Zoriontasunez beste 100! Izan. Ama eta aitaren partetik.



Beñat

Urte askuan txapela kaskuan: Zorionak Lide, Jone eta gurasoen partetik.



Eneritz

Zorionak zure 14. urtebetzean! Aupa Erreala! Aita, ama, Irati eta familiaren partetik.



Maialen

Zorionak Printzesa zure laugarren urtebetzean familia guztiaren partetik.



Ion

Zorionak txapeladun! Ondo pasa zure egunean eta muxuak familiaren partetik.



Maialen

Zorionak zure 2. urtebetzean. Muxu asko amona eta osabaren partetik.



Haize eta Goizi

Mila zorion eta muxu pilo bat zuentzako. A ze pare polita. Lagunen partetik!

Heriotzak

- Jose Ezaguirre Azpiroz, urriaren 24ean, 82 urte zituela.
- Manoli Tolaregain Múciaco, urriaren 23an 85 urte zituela.
- Juana Fernández Ribera, urriaren 23an 94 urte zituela.
- Jose Gil Eleno, urriaren 23an 86 urte zituela.

Jaiotzak

- Lur Malventi Rozas, urriaren 18an.
- Eñaut Quinteiro López, urriaren 17an.

Azoka txikia

Eskaintza inmobiliarioak

• Etxea errenta eman nahi da Lasarte-Orian, 80 metro karratu ditu eta eguzkitsua da. Harremanetarako telefono zenbakia: 628 904 130.

• Garage irekia alokatzen dut Lasarte-Orian, Green plazan. Harremanetarako zenbakia, 943 492 558.

• Garage handia, bi marra ditue-na, alokatzen dut Atsobakar auzoan. Harremanetarako, 943 376 115.

Salerosketak

• Egoera onean dagoen antzina-ko josteko makina erosi nahiko nuke. Harremanetarako zenbakia, 943 365 149.

Lan-eskaintzak

• Emakume euskaldun bat behar dugu adineko pertsona bat zaintzeko. Asteazken zehar arratsalde batean eta larunbata eta igande gauetarako. Interesa dutenek deitu dezatela honako telefonora eta Pilitaz galdetu: 610 953 258. Deitu eguerdian, mesedez, 13:00etatik 15:00ak bitartean.

• Ile-apaintzailea behar da Lasarte-Oriako ileapaindegi batean. Harremanetarako zenbakia, 629 482 335.

Lan-eskariak

• Laguntza klaseak ematen dira, Lehen Hezkuntza, DBH eta Batxilergoa. Talde txikiak, arreta pertsonalizatua, ikasgai guztiak... Harremanetarako zenbakia, 943 376 888 edo 646 645 445 (Maria).

• Andre euskalduna eskeintzen da adineko pertsonak zaintzeko. Harremanetarako telefonoa, 618 097 676.

• Lasarte-Oriako neska gaztea eskeintzen da kurtsoan zehar lana egiteko, umeak zaintzen edo klaseak ematen. Harremanetarako telefonoa, 677 823 141.

• Neska arduratsua eta esperientzia duena eskaintzen da haurrak zein nagusiak zaintzeko. Etxeko garbiketa ere egiteko prest. Harremanetarako telefonoa: 697 946 546.

• Mutil gazte bat eskaintzen da eraikuntzan, garbiketa edo base-ri batean lan egiteko. Harremanetarako zenbakia, 677 593 772.

Oharrak jartzeko:

Tel.: 943 366858 • Geltoki kalea 4
txintxarri@txintxarri.info; www.txintxarri.info
www.txintxarri.iragarkilaburrak.com

Guardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

Ostirala, 29

Gil, Kale Nagusia 24
Tel.: 943 361529

Larunbata, 30

De Miguel, Kale Nagusia 32
Tel.: 943 371151

Igandea, 31

De Miguel, Kale Nagusia 32
Tel.: 943 371151

Astelehena, 1

De Miguel, Kale Nagusia 32
Tel.: 943 371151

Asteartea, 2

Urbistondo, San Frantzisko 1
Tel.: 943 366567

Asteazkena, 3

Orue, Jaizkibel plaza 2
Tel.: 943 362652

Osteguna, 4

Acha-Orbea, Hipodromo et. 6
Tel.: 943 363549

GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero

Chucua, Kardaberaz 48 Hernani, Tel.: 943 551793

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



GFako Kultura eta Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • **Legezko gordailua:** SS513/93 • **ISSN:** 1134-0053 • **Inprimategia:** Zeroa Multimedia, S.A. **Aleak zenbakiko:** 7.700 • **Erredakzioa:** txintxarri@itakun.com • **Publizitatea:** publizitatea@itakun.com • **Administrazioa eta banaketa:** administrazioa@itakun.com; itakun@itakun.com.

Txintxarri ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Dantza garaikidea Lasarte-Orian

"Momentari" eta "Dantzaria naiz" lanak eskainiko dituzte azaroaren 6an eta 19an Manuel Lekuona kultur etxean

Lasarte-Oria Dantzan 2010 egitasmoari esker, martxoan *Kukai* dantza taldearen eta *Tantaka* Teatroa konpainiaren *Hnuy Illa* ikuskizuna eskaini zen kultur etxean. Egitasmo honi jarraipena emanez, azaroan dantza ikusteko beste bi aukera izango ditugu: azaroaren 6an, *Nats Nus* dantza taldearen *Momentari* eta azaroaren 19an, *Verdini* dantza taldearen *Dantzaria naiz*.

Adin guztietako ikusleei zuzendutako ikuskizunak dira kultur etxean eskainiko direnak. Emankizunetaz gozatze-ko sarrera ordaindu beharko da: *Nats Nus* lanerako sarrerak 3,15 euro balio du eta *Dantzaria naiz* lanekoak, aldiz, 6 euro.

Tariren bilduma

Momentari dantza lanean, pertsonaia bitxia ezagutuko dute azaroaren 6an, larunbatean 18:00etan kultur etxeko aretora hurbiltzen diren herritarrek, Tari.

Tarik urteetan osatu duen bilduma berezia erakutsiko du. Egiazko zorionaren bila, denbora luzea egingo du



Momentari lanean, Tarik bildutako sentsazio, kolore, usain eta irudiak ikusiko dira.

ingurua begiratzen, sentitzen eta deskubritzen.

Kubo baten sei aurpegiek eta bertan bizi diren lau pertsonaiek lagunduta, sentsazio, kolore, usain eta irudiz josita-ko bidaia batean barrena eramango ditu *Nats Nus* dantza taldeak ikusleak.

Artea eta diskapazitatea

Verdini dantza taldeak, berriz, *Dantzaria naiz* lana aurkeztuko du azaroaren 19an, ostirala, 20:00etan.

Lan honetan artearen eta diskapazitatearen arteko harremanari buruzko gogoeta aurkeztzen du dantza taldeak.

Harriduraz, sinesgaiztasunez edo ontzat hartuz "Verdini Dantza Taldearen taula gaineko dantza artea ote da?" galdetzen duen gizartearen bilakaerari buruzko metafora polita aurkeztuko du dantza talde berezi honek kultur etxeko aretoan.

Dantza Zirkuitua

Eusko Jaurlaritzak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatutako Dantza Garaikidearen Zirkuituaren seigarren edizioaren barnean dauden ikuskizunak dira kultur etxean eskainiko diren lanak.

Zirkuituak sektoreko profesionalei eta eszenan formatu txikiko nahiz ertaineko azken sortzeak ikusi nahi dituzten zaleei erantzun nahi die. Halaber, euskal Konpainien lanei laguntzen jarraitzeaz gain, herri txiki nahiz handietako antzokiek dantza-ikuskizunetara ahalik eta ikusle gehien erakartzeko egiten duten ahalegina bultzatu nahi da.

KIROLA

Diru-laguntza arruntan eskaera

Lasarte-Oriako Kirolen Udal Zerbitzuak, Kirol Elkarteek 2010eko diru-laguntza arruntan eskaerak aurkezteko epea ireki du.

Laguntza hauen banaketa zuzentzen duten oinarriak "Kiroletako entitate eta elkartei ohiko diru-laguntzak emateko ordenantza erregulatzailan" jasota daude. Interesa duten kirol elkarteek udalaren, www.lasarte-oria.org web orrialdean aurkitu dezakete araudia.

Eskaera eta dagokien dokumentuak azaroaren 15a bitartean aurkeztu behar dira Lasarte-Oriako Udalaren Erregistroan.

DYA

Sorosle ikastaroa Lasarte-Orian

DYA Gipuzkoak herritar guztientzako irekia dagoen Sorosle eta Lehen Sorospen ikastaroa eskainiko du Lasarte-Orian.

Ikastaroaren iraupena hiru astekoa da. Lehenengo saioa azaroaren 8an izango da eta ikastaroaren amaiera, azaroaren 26an izango da. Saioak Landaberri-Garaikoetxea ikastolan izango dira, astelehenetik ostiralera, 19:00etatik 21:00etara.

Ikastaroak egunerokotasunean auri ditzakegun arrisku egoerei nola erantzun irakatsiko du, bihotz eta birika susperteta, zauriak, hausdurak, erredurak...

Bestalde, ikastaro amaierako frogak gaingiditzen dituenak, DYA Gipuzkoak eskaintzen duen Sorosle Titulua eskuratuko du. Era berean, ikastaro hau gaingiditzen duenak, EHUrako 2 kreditu jasotzeko aukera du.

Ikastaroan parte hartzeko ez da beharrezkoa aurrez ezagupenik izatea. Ikasle kopurua mugatua da, ematen den ikastaroaren kalitatea bermatzearren.

Matrikularen kostea, ikastarorako txostena barne delarik 90 eurokoa da. Izena emateko edo informazio gehiago jasotzeko, deitu 943 46 46 22 telefono zenbakira.

JAIALDIA

Herritarrek dantzan Kukukaren alde

Larunbat arratsaldean, 18:00etan, Zubietako frontoia dantzan jarriko da Kukuka Antzerki eta Dantza eskolaren alde.

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoek *Irrien Lagunak* saio eskainiko dute. Gainera, herriko hainbat elkarte ere oholtzara igoko dira eta pailazoek hain ezagun egin dituzten beste doinuak abestu eta dantzatzuko dituzte.

Ekitaldirako sarrerak oraindik salgai daude Lasarte-Orian Jalgi eta Artizar tabernan. Prezioa 6 euro dira.

UDALTZAINAK

Galdutako gauzak

Udaltzainen bulegoan gauza hauek daude jasota, diru-zorroa, urrezko katea, zilarrezko zintzilikarioa, urrezko aliantza Jose Luis grabaketarekin, hiru bizikleta, Shiroko markako motozikleta kas-koa, Samsung markako segapotoa, zilarrezko pultsera, kamiseta beltz bat, puntuzko jaka, eguzkitako betaurrekoak eta bi erloju.

Gauza hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hilabeteko epean jaso behar dituzte. Horietaoren bat ikuska- tzeiko interesaturik dauden pertsona guztiei eskatzen zaie Udaltzainen Bulegora hurbil daitezela, 09:00etatik 13:00etara.



Dantzariak direla argi utziko dute, azaroaren 19an Verdini taldeko neska mutilak.

Fernández

e h u n a k



Nahi edo
behar duzun
huraxe
aurkituko
duzu gurean!



KROSA ANIMATUZ!

Kale Nagusia 2 • Tel.: 943 361607 • LASARTE-ORIA

Zitek zientzi eskola

KORRIKALARIAK ANIMATUZ!



Goikale 12 behea
Tel.: 943 363106
20160 Lasarte-Oria

- Taldeka zein banakako eskolak
- Ikasteko teknikak
- Informatika ikastaroak:
 - ume eta helduentzat
 - goizez, arratsalde eta larunbatetan

MATEMATIKAK

FISIKA

KIMIKA

ESTADISTIKA

LENGOAIA

EUSKARA

INGELES

MARRAZKETA TEKNIKO

AUTOCAD

INFORMATIKA

Osasun Jardunaldi arrakastatsuak

Herriar ugari bildu da kultur etxean hitzaldi interesgarriak entzuteko asmoz

Teknologia berri eta sare sozialenganako adikzioaren hitzaldiarekin eman zitzaion hasiera aurten Lasarte-Oriako Udaleko Osasun, Ingurumena, Merkataritza eta Kontsumo sailak antolatzen dituen Osasun Jardunaldien XVIII. edizioari. Honetaz gain, alzheimerria, tabakoaren adikzioa eta transplanteei buruzko hitzaldiak entzungai izan dira. Horregatik, Lasarte-Orian errotuta dauden jardunaldi hauetan, herriar ugari bildu da.

TXINTXARRI

Astlehenean, XVIII. Osasun Jardunaldien hasiera ekitaldia egin zuen Iñaki Mugika alkate ordeak. Honetan, aurtengo jardunaldiek gai berriak jorratu dituztela azpimarratu eta, "jardunaldi hauek aberasgarriak dira, adikzioei buruz gehiago jakiteaz gain, aurrezaintzen ikasi dezakegulako," adierazi zuen.

Udaletxetik jardunaldi hauen beharra ikusten dute. "Herriarrek informatzea, hezte eta aurrezaintza sustatzea gure betebeharra dela uste dugu" aipatu zuen Mugikak. Aurtengoarekin XVIII edizio dira "eta espero dugu, urtetik urtera edizio gehiago antolatzaren jarraitzea."

Hasiera teknologikoa

Ostean, Enrique Etxebarria, Psikologia Klinikokoak teknologia berrien eta sare sozialak abantailak eta alde txarrak aztertu zituen.

Informazioaren erabilera, komunikazioa, elkarbanaketa, bilaketa... honek guztiak abantaila ugari ekarri ditu egunerokotasunean "horregatik ez da harrigarria 11 eta 20 urte bitartekoen %90ak egunero sarean sartzea" aipatu zuen Etxebarria.

Gainera, mundu berri honetan berrikuntza bat eman dela azaldu zuen, "normalena gurasoak ziren umeak lagundu eta hezten zituztenak,

baina gai honetan gurasoak dira umei laguntza eskatzen dietenak."

Eta gazteengan duen eraginaz ere mintzo zen, "sare sozialetan dagoena existitzen da, bostela ez" eta "taldearen aurrean identitate bat izateko aukera ematen du" epaitu zuen.

Teknologia guztiak bezala gure bizitza erraztu du "baina horretarako erabilpen egokia egin behar dugu" azaldu zuen.

Alzheimerria

Gurutz Linazasoro neurologo eta ikertzaileak Alzheimerri buruz hitz egin zuen astearteren.

Besteak beste, eragile ezezaguna duela eta gaixotasuna izateko eragin ditzaketen faktoreak aipatu zituen, hala nola, adina.

Gaixotasunaren eraginez neuronak hil egiten direla azaldu zuen eta ondorioz, garunaren tamaina murriztu egiten dela, "oroimenaren, hizkuntzaren eta funtzioen zatian du eragin gehien."

Gaixotasunaren sintoma eta fase desberdinak, gaixotasuna nola diagnostikatu, tratamenduak eta zaintzaileek duten garrantzia ere mintzo zen.

Era berean, Alzheimerren Gaixotasuneko Terapia Aurreratuak Ikertzeko Donostiako Zentroa (CITA) zertan datzan eta aurrera eramango duten azterketa azaldu zuen.



Enrique Etxebarria, Psikologia Klinikoko katedratikoa ireki ditu aurtengo Osasun XVIII. Jardunaldiak.



Gurutz Linazasoro neurologo eta ikertzaileak Alzheimerri buruz eman zuen hitzaldia izan zen jende gehien bildu zuena.

Tabakismoa

Asteazkenean berriz, Javier Laparra neumologoak tabakoaren adikzioa nola gaingiditu daitekeen azaldu zuen.

Tabakismoa bere horretan gaixotasun bat bezala ulertu behar da, gaixotasun kronikoa. Erretzeari uzteko formula magikorik ez dagoela esan

zuen Laparrak, hori bai, lehenengo pausua, eta garrantzitsuen, benetan nahi izatea. Erretzaile batek, nahiz eta asko erre egunean, benetan nahi badu adikzioa utzi, aukera asko dituela gogora arazi zuen neumologoak. Erretzeari uztea ez baita hain prozesu erraza, tabakoak adikzio handia sortzen baitu.

Transplanteak

Jardunaldiei amaiera emateko, atzo ostegunean, Luis Balenciaga, Euskadiko bihotz eta biriketako transplantatuen elkarteko bokalak, Garikoitz Lasa, kardiologiako espezialista eta Miren Telleria, hemodinamikako mediku espezialistak transplanteen garrantzia aritu ziren. •

I. URRUZOLA

ARROZTEGIA

- Era guztietako arotz-lanak.
- Armairu barrenduak.
- Etxe barruko konponketak.
- Parket flotantea.



Oria etorbidea 4, behea
(Errekabxo jatebaxearen ondoan)
Tel.: 943 371200 / 610 413131
LASARTE-ORIA



KORRIKALARIEKIN
BAT
EGINEZ !



Hurrengo orrialdeetan:

■ **Lasarte-Oria Bai!**
XV. Krosaren eta X. Kros txikiaren informazioa eta ibilbideen mapak

■ **Elkarrizketa:**
Santos Uribe, atleta beteteranoa

■ **Kros Txikiaren X. edizioa aurten:**
Guztien errepasoa argazkitan

www.txintxarri.info

helbidean
lasterketako
saillapena eta
argazkiak
igandean bertan

www.ostadarkf.org

helbidean ere
kroseko emaitzak
izango dituzue

KORRIKALARIEKIN
BAT!



SUGATE SUKALDEAK



- Gremioen koordinazioa
- Ordenadore bidezko diseinua
- Konpromisorik gabeko aurrekontuak
- Horma- armairuak
- Marka guztietako etxetresna elektrikoak



Pintore Kalea 5 • Tel./Faxa: 943 361471
Lasarte-Oria
www.sugate.net

Santos Uribe / Atleta beteranoa eta Lasarte-Oria Bai! Kroseko 1 dortsala

'Nire bizitza kirola izan da'

Hainbat alditan egin du herriko krosa, Behobia-Donostia lasterketa hamaika aldiz, lau maratointan parte hartu du, baita Donostiako nazioarteko krosean ere. Beterano mailan Espainiako, Europako eta Munduko txapelketetan egon da, 800 metro, 1500 metro eta martxako probetan, eta hainbat titulu, errekor eta domina eskuratu ditu. Horregatik, besteak beste, Santos Uribe herritarrak Lasarte-Oria Bai! krosean 1 dortsala eramango du igandean. Santosekin egon gara bere kirol bizitzari buruz gehiago jakiteko.

Nerea EIZAGIRRE

Noiz hasi zinen lehiatzen?

Lehenengo lasterketa federatua 17 urterekin egin nuen. Hipodromoan Nazioarteko krosean Espainiako taldekako txapelketa izan zen.

Ni orduan, Hernaniko taldean nintzen eta taldea sortzeko jendea behar zuten.

Gainera, garai hartan, bi kategoria zeuden eta gu bigarrenekoak ginen arrren, lehen-goan ibiltzen ginen talde gutxi zegoelako.

Baina, aurretik ere atletismoan ibiltzen nintzen, herriko festetako lasterketa, etab. egiten nituen.

Argazkiak ikusita, asko aldatu da ibilbidea...

Bai, dezente. Orduan, oso gogorra zen Hipodromoko krosa.

Bugatitik sartu eta gora egiten zen sagastira. Gero behera berriro eta errekan salto egin behar zen.

Gaurko lasterketa gurearekin alderatuta, pista bat da.

Noren aurka lehiatu zinen?

Ez naiz askotaz gogoratzen, baina espainiarrak Amoros edo Jose Molins eta hemengoak Irizar, Larraza, Hernandez... Hemengo korrikalari pila zebilen krosean eta maila ere oso ona zen.

Gaur egun Zumeatarra taldean zabilta, baina herriko taldean Michelinen ere ibili zinen, ezta?

Bai, horrela da. Beteranoetan nire lehenengo taldea Michelin izan zen.

Horrekin lotuta, Landaberriko gaztetxoan atletismoko begirale izan nintzen.

Beterano taldea desagertu zenean, Andoaingo Zumeatarako Bixente Huizi eta Joxe Mari Garin ezagutzen nituen, bertara joatea erabaki nuen.

Zenbatetan egon zara Espainiako txapelketan?

76 urte ditut eta 40 urtetatik gora, beterano mailan nabil. Espainiako hainbat txapelketetan egon naiz eta Espainia

osoa ezagutzen dut, punta batetik hasi eta bestera arte.

Gazteago nintzela, iraupen-lasterketetan, 800 eta 1.500 metrotako probetan parte hartzen nuen. Proba gogorrak ziren.

Gaur egun, martxan. Izan ere, belaunak mindu eta, duela hamar bat urte, martxa egiten hasi nintzen.

Aldaketa handia, beraz?

Martxa ere oso gogorra da. Gibel ondoan mina izaten duzu aldakarekin egin behar den mugimenduarengatik,

besoak korrika egiten bezala eraman behar dituzu eta tente joan. Asko nekatzen zara.

Zenbat proba egiten dituzu orain urtean?

Bost proba egiten ditugu, Gipuzkoako txapelketa, Euskadikoan pista eta errepidea eta Espainiakoan ere bi proba horiek egiten ditut.

Eta Europa edo Munduko txapelketera joaten al zara?

Oso urrutia ez bada, joaten gara. Beterano mailan ez dago hainbeste laguntzarik eta taldeak eta kirolariak

jarri behar dugu dirua. Oso garesti ateratzen da.

Foru Aldundiak txapelketako diru kopuru bat ematen du eta kopuru hori joan direnen artean banatu behar da, azkenean 40 euro izan daitezke.

Nola prestatzen dituzu lasterketak?

Lau edo bost egun entrenatzen dut, astean zehar.

Egun batean ibiltzera noa. Mendira joan eta bi edo hiru ordu egiten ditut, gora eta behera. Gero pistari, teknika-rekin hasten zara. Izan ere, mendia ezin da martxa egin.

Hala ere, leku aproposak aurkitzen dira, Santa Barbara aldean, esate baterako, asko ibiltzen naiz eta neurtua dut.

Espainiako txapelketek gain, aipatzeko beste probarik?

Gaztea nintzenean, lau alditan parte hartu nuen Nazioarteko krosean.

Behobia-Donosti lasterketa hamaika aldiz egin dut, lau



Santos Uribe lasarteoriarak hainbat domina lortu ditu beterano mailan. Argazkian, maiatzean Gipuzkoako txapelketan Espainiako errekorra hautsi ostean, eskuratu zuen urrezko dominarekin.

LOKO KROSAREKIN
BAT EGINEZ!



Maite **B**ETELU

B Gestoria
B Aholkularitza
B Inmobiliariako
zerbitzuak
B Aseguruak
B Etxebizitzaren
administrazioa



Aralar plaza 4 behea • LASARTE-ORIA • Tel.: 943 364886 • Faxe: 943 372117

**Poza handia dut Lasarte-Oria Bai!
kros herrikoian 1 dortsala izateagatik.
Gainera, nire lagun mina den Eulogio
de la Sernak eman zidan**

maratoitan parte hartu dut, beterranoetako Donostiako eta Clermond Ferrandeko Munduko txapelketetan egon naiz eta Bordelen Europako txapelketan...

Eta proba berezirik?

Clermond Ferranden oso marka ona egin nuen eta bosgarren izan nintzen mundialean.

Donostian ere oso ongi ibili nintzen, 5 km-tako proban laugarren eta 20 km-tan bosgarren. Lastima ez nuela domina lortu oso gutxiagatik.

Baina lasterketa bereziena, maratoni bat izan zen. Herrera-ko kirol taldeak antolatzen zuen, behin atera nintzen bertan, beste hiru maratoniak Donostian izan dira.

Maratoni hori Oizartzenen Mamuten hasten zen eta Herreraraino zen. Oso gogorra zen eta ibilbideak gora eta behera egiten zuen.

77 korrikalarik bukatu genuen eta ni 33. izan nintzen sailkapen orokorrean.

Baina beterranoetako lehenengo eta trofeoa eta diploma eman zidaten.

Trofeoa aipatu dituzunez, domina gogorik izango duzu...

Logroñoeko Espainiako txapelketako biak.

Orduan, pistako 800 eta 1500 metroko probak egin nituen. Proba horietan lehiakide berdinak ginen.

1500 metroko lasterketan, esprintean hiru gindoa-zen eta azkenean, hirugarren izan eta brontzeko domina lortu nuen.

Hurrengo egunean, 800 metroko proba genuen. Hobeto ibiltzen nintzen proba honetan.

Aurrean beste biak jarri ziren eta ni atzetik nindoan. 100 metro falta zirenean, indarrez ekin eta justu-justu lehena iritsi nintzen.

Orduan, taldeko lagunak etorri eta besarkadak eman zizkidaten. Oso polita izan zen.



Lasarte-Oria Bai! krosaren aurkezpenean, Santos en lagun mina den Eulogio de la Sernak eman zion 1 dortsala.

Atletismoaz gain, beste kirolak egin al duzu?

Futboleko ibilia naiz Añorgan, ekipo ona genuen.

Horretaz gain, Bianchiko langileen eskubaloit taldean ere jokatu nuen.

Kirola besterik ez dut egin, parranda bat ez dut inoiz egin eta. Nire bizitza kirola izan da.

**Krosa, 800 eta 1.500 metroko proba edo marxa, zer nahia-
go duzu?**

800 eta 1.500 metroko probak, dudarik gabe. Belauna-
rengatik izango ez balitz, proba horietan jarraituko nuke.

Baina Arrazola medikuak argi esan zidan korrika egin nezakeela, baina oso mantso.

Eta aipatutako bi proba horiek oso gogorrak dira, abiadura eta iraupena neur-tzen da.

Gainera, lasterketa asko egin behar dituzu.

Ikusteko proba oso politak dira.

**Gaur egunera bueltatuz, igan-
deko Lasarte-Oria Bai! krosean
1 dortsala eramango duzu?**

Bai. Poz handia dut horrega-
tik. Gainera, nire lagun mina
den Eulogio de la Sernak
eman zidan dortsala krosaren
aurkezpenean.

Proba batzuk elkarrekin
egin ditugu, Zabaletan, esate
baterako eta primeran ibiltzen
gara biak.

Baina zoritxarrez, bera
ezin da aurten lasterketan
atera.

**Nola ikusten duzu zure burua
igandera begira?**

Korrika, hau da egiten dudana
proba bakarra eta oso mantso
aterako naiz.

Gainera, egia esan, ez dut
oso ongi prestatu eta adina
ere nabari da.

Asteburuan proba egin
nuen. Kotxeraserik hasi eta
ibilbide gutzia egin nuen. Nire
eritmorra, mantso.

Gero etxera igo behar nin-
tzen oinez eta aldapa bukaera
kostatu egin nuen.

Ez dut sentazio onik.
Nekatu egiten naiz korrika egi-
terakoan. Nire pausora noa,
baina 5 edo 6. kilometroan
hankak pisutsu nabari ditut.

**Noiz arte ibiliko zara lasterke-
tatetan?**

Emazteak lehiaketa uzteko
eskatzen dit. Mendian lasai
ibili naitekeela eta nire erit-
mora.

Baina lehengoan, lagun
batek Donostian, 2013an,
beterrano mailako Europako
indoor txapelketa egingo
dutela esan zidan.

Bi urte gehiago izango lira-
teke. Baina orduan 78 izango
ditut eta nire mailan, 75 eta
80 urtekoan ni baino gaztea-
goak izango dira lehiakide
gehienak. Hurrengo marxoan
edo otsailen izango balitz,
niretzako hobe izango litzake.

Hala ere, nik jarraituko
dut, ezin dut utzi. Uztan
baduzu, gero kosta egiten da.
Hau da nire bizio bakarra eta
gorputzak irauten duenera
arte egiten jarraituko dut. •



Santos Uribe hainbat urteetan parte hartu du krosean. Argazkian, iazko lasterketan.



Bideo Lagunak

LOKO KROSAREKIN BATERA!

Urriaren 25etik 30a arte
BEZa oparitzen dugu (%18ko beherapena)
Telebistak, bideo-kamerak edo argazki-kamerak erosterakoan

Donostia Etorbidea 2 • Lasarte-Oria • Tel.: 943 373134
jose@bideolagunak.com • www.bideolagunak.com

TIEN21eko PLAN REMOVE
AZKENEKO EGUNAK
aprobetxatu!

XV. Kros Nagusiaren ibilbidea

kima

!Lekue Oria 44!

**PROFESORIN
BAYETAKIN**

masaje-lekua



Goyo Martin
Xabier Carbayeda

Kale Nagusia 44 • Tel.: 941 366197
LASARTE-ORIA

ASINFOA
TABERNA

KORRIKALARIENI
BATZEN!

**Razioak
Pintxoak**

...
Elviri abiatzen!

Kale Nagusia 46 • Tel.: 943 370855

 KROSARENIN BAT EGINEZI!

Etorri gure 'lari'
gaxoak
probatzera

 VIÑA del MAR
TABERNA KAFETEGIA

Olla kalera 2. • Larraz-Oria • Tel.: 943 362768

TABERNA
Buenetxea
KAFETEGIA

Astelenehietik astiralera goizeko 07:30ean
irekitzen dugu
Larunbat eta jai egunetan 09:00etan

Pablo Mutiloazabal 2 • Tel.: 943 369308
LASARTE-ORIA

TSX ANIMATUZ
Lasarte-Oria da!

KAFE BEREZIAK
IRLANDESA
ESKOZESA
KAPUTXINOA
BONBOIA

Txokolatea txurroekin



Infusio naturalak
Probatu gure gosariak !!

MAIDER

Taberna-Jatetxea

- Asteburuko menu bereziak
- Egunkero menuak
- Gaueko menuak
- Kartako zerbitzua
- Pintxoak
- Bolataak
- Razioak
- Plater konbintuak

Hipodromo etorbidea 7 • Tel.: 943 362700 • LRS ANTE-ORRI

MILLA,
ETXEEN SALEROSIA





**LOKO KROKAREKIN
BAT EGINEZ!**

Las Vegas



• INMOBILIARIA
• ETXEBIZITZEN ADMINISTRAZIOA

Elena Milla (20/45)
Carlos Milla

Oriamendi 2. behe • Tel/faxa: 943 371600
IASURTE-ORRA



Lasarte-Oria Bai! Krosa, abiatzeko prest

■ Igandean, hilaren 31n, goizeko 10:30ean hasiko da lasterketaren XV. edizioa ■ Umeen krosak aurten X. edizioa beteko du ■ 1 dortsala Santos Uribe lasarteoriatarrak izango du

Igandean goizeko 10:30ean hasi eta ordu bete inguruz mila korrikalari baino gehiago ibiliko dira Lasarte-Oriako kaleetan barrena kros herrikoien XV. edizioan. Nobedade gutxiak izango da aurtengoa "aurreko urteetan egindako

lanaren jarraipena" dela azpimarratu dute antolatzaileek. Hala ere, berrikuntzen artean, azpimarratu behar da Lasarte-Oria Bai! Krosa "Lasterketa Herrikoien Igo Ligarako" puntuagarria izango dela.

Itxaso MORENO

Goizeko 10:30ean emango zaio hasiera Ostadar Kirol Fundazioak antolatutako Lasarte-Oria Bai! XV. Kros Herrikoien. Lehendabizi gorpildun aulkiko parte hartzaileak aterako dira, ostean, gainerako korrikalariak. Helduen sari banaketaren ondoren jarriko da martxan, 12:15ak aldera, Kros Txikiaren hamargarren edizioa.

Iaz bezala, herriko obrak direla medio, berriro ere ibilbideak 600 metro gutxiago izango ditu, beraz 10.000 metrotako luzera duen ibilbidea izango dute korritzeko parte hartzaileek. Berriro ere, Ostadar Kirol Fundazioaren egoitzaren parean izango da irteera, eta helmuga ere bertan izango da. Podiuma berriz, Tripontzi jangelaren atearen aurrean egongo da eta epaileak kirol elkarteko egoitza.

Agurra

Urtero bezala, Erketz Euskal Dantza Taldeko dantzarien eskutik korrikalari guztiei agurra dantzatuko zaie. "Modu horretan parte-hartzaile guztiak omendu nahi ditugu, ez soilik irabazleak" eman dute aditzera Ostadar Kirol Fundazioak.

Ondoren Lasarte-Oria Bai! Krosari emango zaio hasiera. 10:30etik korrikalari guztiak herrian zehar ibiliko dira.



2009ko edizioan Orkoiengo Andoni Etxeberria izan zen garailea (irudian elastiko berdearekin) eta David Martin lasarteoriatarra bigarrena (atzean horiz).

Lasterketa Herrikoien Liga

Aurtengo edizioa berrikuntza batekin dator "Lasterketa Herrikoien Igo Ligarako" puntuagarria izango da. Lehenengo liga horretan parte hartzeko beharrezkoa da txip orria eramatea.

Lasarte-Oriakoarekin batera beste bederatzi lasterketek osatzen da Liga: Josetxo Imaz Memoriala, Zumaia Zakila Bira, Hiru hondartzetako lasterketa, Donostiako oinezko 15 kilometroak, Donibane-Lohitzune-Hondarribia erdi maratokia, Behobia-Donostia,

Azkoitiko Herri Krosa, Donostiako Maratoia eta San Silbestrea.

Dorsalik gabe txipik ez

Aurten ere korrikalarien denborak txiparen bidez neurtuko dira. Antolatzaileek gogoratu dute txipak lasterketa egunean bertan banatuko direla, 9:00etatik 10:15era Michelin kirol guneko frontoi estalian eta behar-beharrezkoa izango dela dortsala eraman eta erakustea, hau gabe ez da txipik emango. "Denbora tarte txiki-kian jende asko gerturatuko

da txipa jasotzera eta azpiegitura nahikoa jarriko dugun arren, korrikalariak azken unera arte ez dezatela itxaron" eskatu dute.

Ordu aldaketa

Ez ahaztu larunbatetik igandera gauean ordua aldatzen dela, gaueko 3:00etan ordularia atzeratu eta 2:00ak izango dira. Urteak dira Krosa eta ordu aldaketa asteburu berean egiten direla, baina beti dago deskantsatzeko ordu bat gehiago aprobetxatzen ez duena, ez zaitez zu izan!!

Lasterketa amaitu ondoren, parte-hartzaileak ura, fruta eta freskagarriak izango dituzte eskura, energiak berreskuratzeko. Eta duxatzeko, kirol guneko instalazioak.

Izen-ematea

Oraindik parte-hartzeko aukera dago. Apuntatu nahi baduzu www.ostadarkfg.org web orrialdean, gaur 17:00etatik 20:00etara edo bihar 11:00etatik 13:00etara bulegoan, edo igandean bertan Michelingo frontoian 9:00etatik 10:00etara duzu aukera. •

LOKO KROSAREKIN BAT EGINEZ!

Maite

BETELU

Lasarte-Oria Bai!

Gestoria

Aholkularitza

Inmobiliariako zerbitzuak

Aseguruak

Etxebizitzaren administrazioa

Aralar plaza 4 beheka • LASARTE-ORIA • Tel.: 943 364886 • Faxe: 943 372117

X. Kros Txikia, aurten

Kros Txikiak aurten hamar urte beteko ditu, hamargarren edizioa izango da. Urte urte haurren kopurua handitzen joan da, antolaketa beharrak aldatu eta hobetzen joan dira. Ilusio handiz martxan jarritako Kros Txikia hazten doa, eta horrela jarraitzea espero dugu. Txintzarriko kideok Kros Txiki horiei errepaso bat egitea pentsatu dugu, hasiera hartan haurrak zirenak nola hazi diren ikusteko. Asko fijatu gabe ere, konturatuko zarete urteak joan, urteak etorri, zenbait laguntzaile urtero daudela txikiei laguntzeko prest. Ea norbait ezagutzen duzuen!



TALDEA	URTEA	ORDUA	DISTANTZIA
(A)	2005	12h15'	100m
(B)	04/03	12h25'	150m
(C)	02/01	12h35'	Bira 1
(D)	00/99	12h45'	2 Bira
(E)	98/97	12h55'	3 Bira
(F)	96/95	13h05'	3 Bira

Adinaren araberako ibilbideak Kros Txikian

Helduen krosa eta sari banaketa amaitu ostean, Kros Txikiaren txanda izango da. Bost eta hamalau urte bitarteko 800 korrikalari gaztetxoek lasterketa zirkuitua Geltoki eta Uistin kalea izango dira. Sei mailatan banatuak eta adinaren arabera, etxeko txikiek 100, 150, 400, 800 eta 1200 metroko ibilbideak osatu beharko dituzte. Gero eta helduago, orduan eta bira gehiago egingo dituzte.

Haurrak nora eraman

Irudian ikusi daitekeen bezala, 2003 eta 2005 urte artean jaiotako haurrek, Landaberri DBHko eraikinaren aurrean dute harrera gunea. Gainontzeko guztiak, hau da

1995etik 2003ra bitartean jaiotakoak, Michelingo kirol gunean bilduko dira.

Antolatzaileek eskertuko lukete, 12:00etan haur guztiak bere harrera gunean egotea. Era honetara, taldeak antolatzeko denbora izan eta lasterketak garaiz antolatu ahal izateko. Harrera gunetik irteera punturako bidea begiraleen laguntzaz egingo dute. Haurrak helmugan jaso behar dira.

Gaur izena emateko azken eguna da. Lau euro ordainduta parte hartzeko aukera izango dute etxeko txikienek. Gainera, parte hartzaile guztiek kamiseta bat, domina bat eta edateko jogurt bana jasoko dute. Ondo pasa eta zorte on guztiei!!!



Ilusio eta gogo handiz bizi izan zen lehenengo edizioa 2001ean; laurehun haur eta gaztek hartu zuten parte.

JOSE AIZPURUA UNANUE S.L. eraikuntzak



- Igeltseritza orokorrean
- Fatxaden estaldurak
- Estalkien berriztatzeak
- Gremioen koordinazioa
- Barne erreformak



KORRIKALARIEKIN BAT EGINEZ!

Lasarte-Oria Bai!

Obaba Kalea 29 • Asteasu • Tel./Faxa: 943 696 852 • Mobila: 620 800186





Azkeneko esprinta bezain garrantzitsua izaten da, irteera lekuan, lasterketa hasi aurretik leku onean kokatzea. Batzutan liskarrak ere izan dira, marra txuria zapaltzen edo pixka bat aurrerago daudenean.



Eguraldiak laguntzen ez badu ere, gogoz ateratzen dira beti herriko gaztetx oenak. Eskerrak aurretik doazen laguntzaileek abiadura neurtzen dieten hasieran, bestela batek baino gehiagok musukatuko luke lurra.



Denak prest, antolatzaileek irretoko abisua noiz emango.

Adiskidetasunez, denok batera irteera lekura, lehia gero etorriko da.

SANCHO TABERNA


KAXUELA,
PINTXO ETA
MORUNOETAN
ESPEZIALIZATUA

HITZARTUTAKO
ETA
TALDEENTZAKO
MENUAK



OGITARTEKOAK **Lasarte-Oria Bai!**
KORRIKALARIEKIN BAT EGINEZ!
PINTXOAK

PLATER KONBINATUAK
EGUNEKO MENUA



Oriamendi enparantza 1 behea · Lasarte-Oria · Tel.: 943 372075



Txintxo-txintxo joaten dira beti haurrak irteera lekura. Zain egon diren bitartean, askotan begirale eta laguntzaileekin beroketak egiten dituzte, oso garrantzitsuak zaintzirurik ez izateko.



Aurpegian daramate ilusioa isladaturik haurrek, bejondeizuela!


2008ko Krosak Okendon izan zuen amaiera azkeneko aldiz, aurtan ere Ostadarren parean egongo da helmuga.



Eguraldi ederra urte honetakoa, ea aurtan, eguzkirik ez badugu ere, ateri dugun eguna behintzat.

Iaz 700 haur eta gaztek hartu zuten parte 2009ko Kros Txikian, aurtan 800 inguru aurrikusten dituzte.

Goizeko 5ak arte irekita!!



Pablo Mutiozabal 5 • Tel.: 943 372089
LASARTE-ORIA

ABEND

KAFE-ANTZOKIA

LASARTE-ORIAKO KROSAREN ALDE!

Lasarte-Oria Bai!

EGUNEKO MENUA
DANTZA
BOKATAK
KONTZERTUAK

Egunero

Erakusketa

HEGOALDERA BEGIRA, Irati Bergararen argazki erakusketa. Jalgi kafe-antzokian, egun osoan.

Erakusketa

PROSALUS GKeren erakusketa-aren azken eguna da gaur. Manuel Lekuona kulturetxean, 18:00etatik 21:00etara.

Ostirala, 29

Antzerkia

MORTIMER antzezlan eskainiko du Kukubiltxo taldeak. Antzezlan klown formatuan

eskainiko dute. Jalgin, 23:00etan, EUSKARAZ.



Larunbata, 30

Ekitaldia

PIRRITX, PORROTX ETA MARIMOTOSTEN saioa Kukuka Antzerki eta Dantza eskolaren alde. Zubietan, 18:00etan, EUSKARAZ

Kontzertua

PUNK-ROCK GAUA! Aurka, herriko taldearen emanaldia eta Ex-Pañolak Trintxerpekoena. Obelix tabernan, 18:30ean.

Asteazkena, 3

Diaporama

MEXIKORI buruzko diaporama eskainiko du Irati Bergarak. Jalgin, 21:30ean, EUSKARAZ

Larunbata, 6

Dantza

MOMENTARI dantza emanaldia Lasarte-Oria Dantzan ekimenaren barruan. Sarrera, 3,15 euro. Kulturetxean, 18:00etan.

Kirolletako agenda

FUTBOLA

Larunbata 29

10:00etan, Ostadar - Lengokoak (Infantil Txikiak) Micheline.
11:30ean, Ostadar - Lazkao (I. Kadetea) Micheline.
14:00etan, Ostadar - Hondarribi (Kadeteen Ohorezko Maila) Micheline.
15:30ean, Texas Lasartearra-Vasconia (I. Erregionala) Micheline.
17:15ean, Ostadar - Martutene (Erregional Gorena) Micheline.

09:00etan, Hernani - Ostadar (Partehartze infantilak) Zubipe, Hernanin.
13:15ean, Ostadar - Intxaurdi (Emakumezkoen KDT F-II) Harane, Usurbilen.
15:30ean, Andoingo Ontzerri - Ostadar (I. Erregionala) Ubitarte, Andoain.
16:00etan, Billabona - Ostadar (I. Jubenila) Arratzain, Billabonan.
16:30ean, Añorga - Ostadar (Jubenilen Ohorezko maila) Rezola, Donostian.
17:30ean, Tolosa - Ostadar (Infantilen

Ohorezko Maila) Usabal, Tolosan.
18:30ean, Hernani - Ostadar (Emakumezkoen Liga) Zubipe, Hernanin.

Igandea 31

10:45ean, Añorga - Ostadar (Alebinak) Igartza, Beasainen.

ARETO-FUTBOLA

Ostirala 29

21:00etan, ISU Leihokak - Anoetako Gazte Asanblada (Gipuzkoako Liga, I. maila) Kiroldogian.

Larunbata 30

17:00etan, Aldaz H.K. - La Bellota (Nazional B maila) Kiroldogian.

PILOTA

Ostirala 29

20:30ean, Usurbil - Intza (Eskuz binaka II. Kadetea) Usurbilen.

Larunbata 30

15:15ean, Intza - Ziotza I (Gipuzkoako txapelketa, Eskuz binaka alebina) Micheline.

17:00etan, Gazteleku I - Intza I (Gipuzkoako txapelketa, Eskuz binaka infantila) Andoingo ikastolan.
17:00etan, Gazteleku 2 - Intza 2 (Gipuzkoako txapelketa, Eskuz binaka infantila) Andoingo ikastolan.

JUDO

Larunbata 30

Asteburu osoa, LOKEko judokek X. Avileseko Hiria lehiaketan parte hartuko dute, Avilesen.

ATLETISMO

Igandea 31

10:30ean, hainbat herritarrek Lasarte-Oria Ba! Kros herrikoian parte hartuko dute.

TXIRRINDULARITZA

Igandea 31

08:30ean, Ostadarreko zikloturista taldeak Ibiur, Baliarrainera egingo du irteera.

Eskutitzak

Elgarhi Nayem Foidal Mohamed Suedi, guk ez zaitugu ahaztuko

Zenbat odol isuri behar da Espainiar Estatuak begiak ireki ditzan? Zenbat Elgarhi Nayem Foidal Mohamed Suedi lurperatu behar ditugu Nazioarteko Komunitateari bihotza hunkitze? Erotu al gara denak, edo zer da gertatzen ari dena bufoi herri honetan?

14 urteko mutiko kozkor bat hil da marokoar polizia-aren eskuetan eta inori ez dio dardarizkoak ematen. 14 urteko mutiko batez ari gara hitz egiten, ez al du ezer balio gazte honen biziak?

Nayem Foidal marokiarrak poliziak eraila izan da eta oraindik bada jendea lotara lasai eta barne korapilorik gabe doana. Barka, nor edo nor gaizki sentitzen bada hau entzutean baina pertsona hauek izen bakarra dute: hiltzaileak. Ez du inporta nork zuen arma eskuetan gazte honek zuen eskubide bakarra, bizitzeko eskubidea, lapurtu zitotenean, ez du inporta, arma hori esku batek baina gehiagok eusten du eta.

Argi dago zenbaitentzat ez duela inporta nor jartzen den beraien jomugan, berdin zaie agure, gizon, emakume... izatea, berdin zaie! Garrantzitsuenak sahararren gatazka zein momentu hauek izan bizi den izualdia ez ezagutzea da (ez dezagun ahanzi zauritu gehiago dau dela eta beste baten heriotzaz hitz egiten ari dela), azken finean, saharar herriak bizi duen errepresioa ezkutatzea eta ahaztea.

Baina, Ya-lah Gazte Ekinmenetik gure indar guztiaz salatu nahi dugu saharar herriak urriaren 9tik, kanpamenduak altxatzea erabaki zuenetik jasaten ari den bortizkeria. Bigarren mailako hiritarrak dira beraien lurretan, hezkuntza, osasun eta lan eskubideak, bortxatu eta isildu dizkiete. Eta dena, sahararrak direlako, beraien lurra maitatu eta bertan bizitzaren jarraitu nahi dutelako. Gure elkartsuna eskaintzen diogu hildakoaren senitate zein beste biktima guztiei. Ez dugu utziko Nayemen izena, ahaztutako beste izen bat izaten. Nahiz eta izen propioa duten zenbaitek herri hau zein bere arrazoiak ahazten saiatzen diren, gu ez gara isilduko! Ez da espainiar gobernuko ministra herriak esan duen bezala lasai egote-

ko garaia, gure ahotsak goratu eta bat egiteko garaia da.

Utzi saharar herria bakean! Independentzia eta autodeterminazioa orain! Sahara askatu! Sahara hurra!

Yal-lah Gazte Ekimena

Gazteak gara ez terroristak!

Ostegun gaueko operazio polizialaren aurrean Lasarte-Oriako gazte independentistak ondorengo hausnarketa helarazi nahi dieugu:

Lehenik eta behin, gure besarkada goxoen eskaini nahi diegu atxilotu eta torturak jasateko arriskuan dauden gazte guztiei. Ondoren ozen adierazi nahi diegu bai estatu espainolari eta baita frantsesari ere: gazteak gara eta harro gaudela!

Gu Euskal Herriko gazte independentistak gara. Gure herria, Lasarte, maite dugu, Euskal Herria maite dugu. Eta horrexegatik determinazioz eta harrotasunez lotzen gara belaunaldiz belaunaldi independentziaren eta sozialismoaren aldeko borrokar.

Baina Euskal Herrian gazte izatea ez da erraza, delitua baita! Estatu zapaltzaileek badakite gazteria dela herri guztietako borroka motore. Horregatik behin eta berriz kolpatzen gaituzte, polizia armatua bidaltzen dute gaueko ordu txikietan gure etxeetako ateak bota, gure familiak jazarri, gu atxilotu eta torturatu ostean espetxeratzeko. Beldurra hedatu nahi dute gazteriaren artean, otzan eta isilik nahi baikaituzte.

Baina ez dute ulertzen ezin izan dutela eta ezin izango dutela! Hemen gaude, garenaz harro eta aurre egiteko prest! Ez gaituzte kikilduko!

Amaitzeko, azpimarratu nahi dugu eraso polizial hau ez dela ausazkoa izan, SEGI gazte erakundeak, momentu politiko berriari egokitzeko, prozesu berri bati ekin dio, ikasturte oso hau iraugo duena. Horregatik, Lasarte Oriako gazte guztiei esan nahi diegu gure proiektu politikoarekin jarraitzeko asmoa dugula eta horretarako euren laguntza behar dugula. Batu gaitzen etsaia-ri aurre egiteko!

Euskal gazteria aurrera!!!

Lasarte-Oriako gazte independentistak

Oharrak

Etxerat elkarartearen elkarretaratzea

Hileko azken ostiralero bezala, Lasarte-Oriako Etxeratek kontzentrazioa egingo du 20:00etan Udaletxearen aurrean eta deialdia luzatu nahi die herritar guztiei parte hartu dezaten.

Ostadarreko futbola porra

Ostadar K.F.-k antolatutako duen lehenengo itzuliko futboleko porrak badu bere lehenengo irabazlea. Estatuko ligako 8. jardunaldiako, hau da, urriaren 24ko asteburuko jokalarien puntuaketak kontuan izanik, irabazlea Dakarai tabernan egindako Iban Barrado txartela da, 102 punturekin. Saillapen nagusiari dago-

kionez, Javi Garcia da lehengoa 251 punturekin eta tabernen kasuan, 2890 puntu dituen Jalgi taberna da.

1962. urtekoen afaria

1962. urtean jaiotako lasartearrentzat afari bat antolatuko dugu azaroaren 13rako, Dana-Ona jatetxean. Interesatuak 40 euroko diru sarrera egin behar dute, azaroaren 5erako, honako kontu korronte zenbakian, 3035 0036 17 0361127028. Argibide gehiagorako, deitu: 646 274 376 (Bea) / 659 950363 (Rexu). Kiroletako oharrak

Oharrak jartzeko:

Geltoki kalea 4
Tel.: 943 366858
txintxarri@txintxarri.info

Dagokionari

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkaria. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943 366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz mezua txintxarri@txintxarri.info helbidera bidaliz edo bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).



Nagusia 36, beheka 20160 Lasarte-Oria
Tel.: 943 37 04 46



Nagusia 50, beheka
Lasarte-Oria
Tel.: 943 36 36 11



Geltoki Kalea 15 beheka
Lasarte-Oria
Tel.: 943 376585

HARATEGIA



URDAITEGIA

JUAN IRAOLA
& HIJOS S.L.

ITURGINTZA



ETORRI
GURE DENDA BERRIA
IKUSTERA



AIRE GIROTUA

CASA



KORRIKALARIEKIN
BAT!



ITURGINTZA
BEROKUNTZA

Iñigo de Loiola Kalea 8 beheka • administracion@iraola.eu • Tel.: 943 36 0 500 // 652 774679



IZARRA

BITXITEGIA



Lasarte-Oria Bai!
KORRIKALARIEKIN
BAT!

Geltoki kalea 19, Tel.: 943 371384 • Juan XXIII.a plaza, z/g, Tel.: 943 364945



www.izarrabitxitegia.com

IPARJOY[®] A.I.E.

